

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-09-05 / 576. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Mikel Iturria Espainiako Vueltan

Urnietako txirrindularia hiru asteko lehen itzulia osatzen ari da Euskadi-Murias taldearekin. Lehen atseden egunean elkarrizketa eskaini dio Aiurri astekariari / 8

Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia azken finalaurrekoa Urnietan izango da / 6

"Ikasturte hasiera hiru urtekoentzat", Arkaitz Lasa Andoaingo irakaslearen iritzia / 4



Jaiak Sorabillan, ikasturtearen hasierarekin batera

Urnietan irailaren 14an eta 15ean jaiak ospatuko dira Etxeberri plazan, eta irailaren amaieran Sanmielak.

UDAL IKASTAROAK URNIETA 2018-2019

LEKAIKO KULTUR ETXEA

HELDUEN IKASTAROAK

- Joskintza I, II eta III
- Puntu eta kakorratza
- Zur taila
- Eskulanak
- Marrazketa eta pintura

HAURREN IKASTAROAK (euskaraz)

- Argazkilaritza (8-12 urte)
- Eskulanak (+5 urte)
- Marrazketa eta pintura (+5 urte)



SAROBE

HELDUEN IKASTAROAK

- Yoga
- Pilates
- Gimnasia hipopresiboa
- Bizkar eskola

HAUR ETA GAZTEEN IKASTAROAK

- Gazte funky
- Balleta (2007-2011)
- Sormen dantza (2012-2014)

ANTZERKI TAILERRA



KIROLDEGIKO IKASTAROAK

- Spinning
- Tonifikazioa
- 3. adina
- Zumba
- Fitness aholkularitza

Animatu eta izena eman Lekaioko, Sarobeko, edota Kiroldegiko ikastaroetan.

IZEN-EMATEAK

- Bertan: San Juan plaza
- Sarobe AEG: Iurramendi, 2
- Udala kiroldegia: Pintore, z/g



Urnietako
udala

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Hizkuntza bat ikasteak ahalegin handia eskatzen du. Hizkuntza edozein dela ere, ikasleek dedikazio eta denbora eskaini behar diote zeregin horri. Baina ematen ditu gero bere fruituak. Batez ere, euskara bada ikasten den hizkuntza hori. Izan ere, Buruntzaldeko euskaltegiek euskara maila guztietan ikasteko eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen dute. Eskualdeko udalen helburua matrikulazioak bultzatzea da, eta, horretarako, diru-laguntza sortak eskaintzen dituzte. Gainera, laguntza horiek HABEK ematen dituenarekin bateragarriak dira. Horrenbestez, Buruntzaldeko herritarrei ia doakoa atera dake ikastaroa; apustu segurua da euskara ikastea.

Ikasturtea hastera doa. Aurrekoan, 2016-2017koan, 946 ikasle aritu ziren euskaraz ikasten Buruntzaldeko euskaltegiren batean. Eskualdeko Euskara Zerbitzuen helburua ikasle gehiago izatea da, eta joan den ikasturterako helburu argia jarri zuten: 1.000 ikasletara iristea.

Artean izen-ematea itxi gabe da, eta, beraz, irail amaiera arte ezingo dira matrikulazioen behin betiko datuak jakin. Edonola ere, orain arte bildutako datuei erreparatuta, baikor agertu dira eskualdeko euskara teknikariak. Udarako ikastaroen datuen faltan, matrikulazio gutxi batzuk behar dira muga hori gainditzeko.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik. Halere, herri bakoitzean laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta diruz lagundutako kopuruak desberdinak dira. Baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxienezko asistentzia bete behar da, eta erroldatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 664 euro arteko mugapean.

Horrez gainera, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ere laguntzak ematen ditu. 2018. urtean 1.800.000 euro emango ditu, eskatzaileen artean banatzeko. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2017ko martxoaren 17tik 2018ko abuztuaren 31ra euskaltegi edo euskararen zentro ho-



Euskaltegiako ikasleak, apunte artean, ikasturte amaierako azterketareako prestatzen. BURUNTZALDEKO UDALAK

Euskara ikastea, apustu segurua

Buruntzaldeko udalek euskaltegiako matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Ikasleari ia dohain atera dake ikastaroa. Gainera, eskaintza zabala dago eskualdean. Iaz 1.000 ikasle inguru izan zituzten

mologatu batean matrikulatuta egon beharko da; bestetik, 2017/2018 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatu beharko da. Diru-laguntza horiek jasotzeko eskabidea 2018ko irailetik aurrera egin daiteke.

Ikasleak

Ikasle ugari animatu dituzte laguntzek euskaltegietan izena ematera. Baina beste motibazio ugari ere badituzte ikasle horiek: lana bilatzea, galdutako hizkuntza berreskuratzea, jakin-mina...

Esaterako, Edurne Arnaiz aurtan ere animatu da euskaltegira. "Niregatik apuntatu nintzen; euskara ikasi nahi dut, Euskal Herrian bizi naizelako". Badaki baliagarria izango zaio-lana bilatzerako orduan, administrazio publikoan, adibidez.

Gainera, hasieran uste zuenaren kontra, ez du uste hizkuntza zaila denik. "Ulertzeko ez da batere zaila. Hitz egitea kostatzen da, beste hizkuntzetan bezala".

Ez da zailagoa

Maialen Heras, berriz, hirugarren profilerako azterketa prestatzen ari da. Euskaraz badaki, euskaldun zaharra da, baina euskararen gaitasun agiria behar du lanerako. "Bai, euskaltegian asko ikasten da, baina nik hobetzeko gehiago irakurri behar-

ko nuke". Haren ustez, euskara ez da beste hizkuntzak baino zailagoa. Ingelesarekin alderatu du. "Niri ingelera egiten zait zailagoa".

Ekaina bukaera izaten da azterketa garaia, eta uda iritsi ahala hasten dira ikasleak ikasitakoa erreparatzen. Almudena Carvajal da horietako bat. "Betidanik izan dut ikasteko gogo. Txikitik zerbait ikasi nuen, baina sakondu nahi dut". Helburu bikoitza du: batetik, txikitik ikasitakoa berreskuratzea. Baina oposaketak prestatzen ari da, eta, horrenbestez, ongi etortzen zaio euskararen ziurtagiria eskuratzea. Sonia Garcia harekin ibili da euskaltegian: "Oso gustura ikasi dugu, primeran moldatzen gara irakaslearekin. Klean ikasten duguna osatzen dugu euskaltegian".

IKASLEEK GUSTURA AMAITU DUTE IKASTAROA: "KALEAN IKASITAKOAK OSATU DUGU IKASGELAN"

Udalen diru-laguntzak

ANDOAIN

- **Baldintzak** Andoainen erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru-laguntza** Matrikularen %85 guztiei; familia ugariak edo diru sarrera murriztuak dutenei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664ko muga.

ASTIGARRAGA

- **Baldintzak** Astigarragan erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru-laguntza** Kasu guztietan 600 euroko muga izango du laguntzak. Matrikularen %75. Langabetuei, merkatariei eta 12 urtetik beherako haurren bat dutenei: %100.

HERNANI

- **Baldintzak** Hernanin erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru-laguntza** Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga.

LASARTE-ORIA

- **Baldintzak** Lasarte-Orian erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru-laguntza** Matrikularen %85.

URNIETA

- **Baldintzak** Urnietan erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %80.
- **Diru-laguntza** Langabeei, %80. Besteei, %50. 500 euroko muga.

USURBIL

- **Baldintzak** Usurbilen erroldatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %80.
- **Diru-laguntza** Guztiei, matrikularen %100. 600 euroko muga.

Buruntzaldeko udalek %75 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

*dena irabazteko,
ezer ez galtzeko!*



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@ae.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@ae.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@ae.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

**Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal
Euskaltegia**

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Euskaltegia
Errekalde kalea, 1

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ARKAITZ LASA AITA LARRAMENDI IKASTOLAKO IRAKASLEA

Ikasturte hasiera hiru urtekoentzat

Uda pasa ondoren guztioi kostatzen zaigu, gehiago edo gutxiago, berriz eguneroko erritmoan eta eguneroko jardueretan buru-belarri hastea. Honen eragina gudan ezberdina den arren, orokorrean, nekeza egiten zaigu eta emozio ezberdinak eragiten dizkigu. Haurrei ere kosta egiten zaie eta ikasturte hasierak ez die modu berean eragiten guztiei. Helduoi bizitzan pilotutako esperientziak eta errepikatutako egoerek lagundu egiten digute aldaketa hauetara egokitzen. 3 urteko haurrentzat, adibidez, egoera hauek berriak dira eta intentsitate handiagoz eragiten die. Adin honetako haurrak emozionalki zaugarriak dira egoera berri hauen aurrean. Aldaketa hauetara egokitzeko denbora tarte bat behar izaten dugu helduok eta haurrek ere, egokitzapenaldi bat behar izaten dute ikasturte hasieran.

Egokitzapen tarte honetan, dudarik ez dago, helduok transmititzen dizkiegun emozioak eta izan ditzakegun aurreiritziak eta beldurrek eragina dutela haurrengan. Testuinguru lasai batek bere barruak lasaituko ditu eta alderantziz, tentsio, beldur edo urduritasunezko testuinguruak haurrari eragingo dio.

Haurrak berezkoa du garapena, naturala da. Helduok, testuinguru egoki bat eskaini behar diogu eta, bere beharrak asez gero, garatzen joango da. Garapen honen erritmoa ezberdina da haur bakoitzean eta alferrik arituko gara azkartu nahian. Egokitzapena, ikasketa prozesua, harremanak,

komunikazioa..., hori guztia eta gehiago izango du haurrak ondorengo hilabeteetan. Testuinguru lasaia, konfiantzazkoa, segurua eskaintzen badiogu eta motibatzen baldin badugu, egon ziur, haurrak bere bideari ekingo dio. Horretan saiatzen gara irakasleok,

IZAN DEZAGUN KONFIANTZA HAURRENGAN, LAGUN DIEZAIEGUN BERAIEK GARAPENEAN

haurraren bidelagun izanez, bere garapena gauzatu dezan lagunduz. Lore bat lur egokia, argitasuna eta behar duen ura duenean berez hazten den moduan.

Izan dezagun konfiantza haurrengan, eskutik helduta lagun diezaiegun beraien garapenean, jar diezaiegun testuinguru egoki bat, entzun ditzagun eta saia gaitzen beraien beharrak asetzen eta noski, bihur gaitzen gu ere haur.



POSTONTZIA

URNIETAKO UDALA BOZERAMAILEEN BATZORDEA (EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE)

Adierazpen instituzionala

Urnietako Udalean ordezkari dugun alderdi politiko guztiok gure gaitzespen eta arbuorik irmoena adierazi nahi dugu joan zen abuztuan Donostiako Aste Nagusiko jaietan udalerriko gazte batek jasandako erasoaren aurrean.

Erakunde bezala gure eginbeharra da, Urnietan bizi garen pertsona guztiena ere baden bezalaxe, indarkeria matxistari arbuioa adieraztea eta indarkeria mota horren erroetan dauden egiturak eraldatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraztea.

Bereziki, biktimarekiko gure babes eta elkartasuna adierazi nahi dugu Horregatik, Bozeramaileen Batzarrak:

- 1 Oinarri matxista duen indarkeria berekin daraman edozein ekintzaren aurrean bere arbuio eta gaitzespen irmoena adierazten du.
- 2 Bere babesa, elkartasuna eta maitasuna adierazi nahi dizkie gazte honi, bere familiarrekoei eta lagunartekoei, eta Udalak dituen arreta baliabide eta zerbitzu guztiak euren esku jartzen ditu.
- 3 Indarkeria matxistaren edozein motatako

ONARRI MATXISTA DUEN INDARKERIA KASUAREN AURREAN GAITZESPENA ADIERAZTEN DUGU

adierazpenen aurrean esku-hartzeko konpromisoa azpimarratzen du, eta beraz ezabatzea sustatzen duten neurriak babesteko eta bultzatzeko bere borondatea berresten du.

- 4 Modu berezian, biktimari lehenengo laguntza eskaini zion lagun urnietarraren jardute azkar eta solidarioa eskertu nahi du.

Testuinguru honetan, Urnietako Udalak herritar guztien inplikazioa eskatzen du, adin guztietako gizon eta emakumeena, gutako edonorren jarrera aktiboa eraso bat saihesteko erabakigarria izan daitekeela jabetu gaitzen.

URNIETAKO UDALAK BERE BABESA ADIERAZI NAHI DIE GAZTEARI ETA SENTARTEKOEI



Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeke harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

PRENTSA BULEGOTIK

"Indarkeria eta kontaera literarioa" Urnietan

ELKARBIZI TALDEA - BURUNTZALDEA

Erredakzioa ANDOAIN

Irailaren 12an egingo du Elkorbizi taldeak 2018rako antolatu duen programaren hirugarren ikastaroa. "Indarkeria eta kontaera literarioa" izango dute hizpide ekitaldi berri honen baitan. Hizlaria Ramon Saizarbitoria idazlea izango da, bere zenbait liburuetan *-Ehun metro* edo *Martutene* aipa daitezke- indarkeriaren errealitateari hurreratu zaion autorea.

Aurkezpenik behar ez duen idazlea da Saizarbitoria, euskal nobelagintza garaikidearen erreferentzia nagusietakoa baita. Ezaguna izateaz gain, sari nagusienak eskuratu ditu bere ibilbide osoan zehar.

Elkarbizi taldeak hitzaldi-ikastaroaren aurkezpenarako oharra helarazi die hedabideei: Indarkeria politikoaren aroa ulertzeko eta memoria osatzeko orduan narrazio literarioak har dezakeen funtzioa aztertzea



Ramon Saizarbitoria idazlea.

LEKAIKO KULTUR ETXEAN HIZLARI LANETAN RAMON SAIZARBITORIA IDAZLEA ARITUKO DA

ANTOLATZAILEEK ALDEZ AURRETIK IZENA EMATEKO GOMENDIOA LUZATU DIETE INTERESATUEI

izango litzateke ikastaro honen helburua. Saizarbitoriaren iritzi, indarkeriaren errelatoa egitearen obligazio nagusia historialarien esku utzi beharko litzateke, oinarritzko gertakarien inguruko adostasun bat lor dezaten. Bere ustez, "badaude gertaera ukaezinak, edonondik begiratuta ere, hamarkadetan E'TAk euskal gizarteari entzungor egin zionez gero, honek hari indarkeria gelditzeko argi eta garbi eskatzen zionean, erakunde armadunak sorrarazitako sufrimendua guztiz alferrikakoa zela eta beraz ez zuela existitu behar, eta orbana bihurtu dela abertzaletasunaren historia duinaren baitan". Bide beretik, Saizarbitoriak dio, "literaturak balio du zenbait auzi azaleratzeko, nabardurak erakusteko, alderdi subjektiboak aztertzeke, sentimenduak birsortzeke, kontakizun historikoa osatu eta adibidez adierazteke, azken batean".

Parte hartzeke plazak mugatuak direnez, izena emateko epea astelehenean, irailaren 10ean, bukatuko da. Izen ematea, posta elektronikoko bidez egin daiteke: ganboiturri@gmail.com

HAU BE BADUGU!

Oihartzun handiko iritzi artikulua

Oporraldiaren atariko Aiturri astekarian, David Urtasun andoaindarrak "Aitari eta amari zor zaien maitasuna" idatzia argitaratu zuen. Hil zaizkion gurasoen omenez, aita eta ama guztien omenez, bere abentura pertsonalaren idatzi hark Facebook sare sozialean sekulako oihartzuna lortu zuen. Animozko mezu ugari jaso zituen Urtasunek.

Areagotuz doan ika-mika, itxaferoena

Buruntzako jai batzordeak aurtengo jai egitarauan argi zioen: oilasko biltzean itxaferoak bota behar zituzten. Sarean zalaparta sortu da, eta aurka agertu diren horietako batzuek goizeko ordu txikietan ere entzun zituztela zioten. Ez zen horrela izan, goizean hasi baitziren botatzen. Baserrien erronda hastearekin batera, hain zuzen. Antza denez, gutxi batzuren obsesioak ez du etenik.

Trafiko arazoak

Abuztuaren 29an kamioi batek istripua izan zuen N1 errepidean, eta hainbat orduz N1 eta A15 errepideak itxi behar izan zituzten, Gasteizerako norabidean. Auto pilaketaren eraginez, trafiko arazoa Andoain herrigunera zabaldu zen. Leizotzen arazoak biderkatu egin ziren, kamioiek bertatik igaro nahi izan zutelako. Galarazita dute, baina jaramonik ez. Sare sozialetan seinale handiagoak eskatu dituzte hainbatek.

AURRERAPENA

Omenaldi ekitaldia

Bastero kulturgunearen programazioa etxe etxe banatzen hasten direnean, Santa Zezilia zikloaren berri jasoko dute herritarrek. Aurtengoan protagonismoa Alberto Agirre abesbatzarentzat izango da, azaroaren 25ean jasoko duten omenaldi kontzertuaren bitartez. Urteak, hamarkadak dira herriko hainbat txoko eta ospakizunetan kantari dabiltzala. Ondo merezitako aitortza jasoko dute, beraz. Andoaingo Udal musika eskolako bandak, Olagain txistulari taldeak eta abesbatza ezberdinek gorazarre egingo diote Andoaingo Alberto Agirre abesbatzari, Basteroko auditorioan.

GORA ETA BEHERA

**Ongi etorri baserrira ekimena**

Hiritarrek baserri eremuko lan jarduera bertatik bertara ezagutzeko ekimena goruntz doa. Antolatzaileak pozarren daude: "Aurtengo edizioa oso ondo joan dela ezin dugu ukatu. Harrotasunez diogu, iaz baino jende askoz gehiagok hartu duela parte, aurtengoan 670 pertsonak hartu dute parte, iazko 559 pertsonekin alderatuta". Kanpokoez gain, bertako biztanleak badira bisitarien artean.





Auzo bazkaria, iazko jaietan. AIURRI

Irailaren 14 eta 15ean Etxeberri auzoan jaiak

Datorren irailaren 10a, larunbateko auzo bazkarirako txartelak erosteko azken eguna

Erredakzioa URNIETA

Urnieta irailean jaietan murgilduta bizi dela esan daiteke. Berziki, azken urteetan. Ohikoa da Sanmielen aurreko asteburuan hainbat hitzordu antolatzea. Urteotan, ordea, Sanmielen atarikoaren atariko bilakatu dira Etxeberri auzoko jaiak. Etxebizitza berri ugari eraiki dira bertan, eta han bizi diren hainbat bizilagunek plazari eta inguruari nortasuna eman nahi diote. Irailaren 14 eta 15erako ospakizunak iragarri dituzte, hauek:

Irailak 14, ostirala

18:30 Txupinazoa.
19:00 Pailazoak, pintxo-pote musikala.

Irailak 15, larunbata

11:30 Ginkana.
13:30 Paella jatea. Bazkari herrikoien txartelak salgai irailaren 10era arte Biak eta Celtic's saltokietan.
16:00 Eskulanak.
17:00 Bingoa.
18:30 Karaokea.
20:00 Era askotako tortila lehia-keta.
21:30 Afari herrikoia. Bakoitzak berea eraman behar du.
22:30 Diskofesta DJ Katxorren eskutik.



Urnieta azken finalurrekoa jokatuko da, irailaren 22an. Eta finala Usurbilen, datorren irailaren 29an. AIURRI

Sagardo txapelketa herrikoia Urnietan

Gipuzkoako sagardogileen elkartearen eskutik, datorren irailaren 22an Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoien azken finalurrekoa jokatuko da Urnietan. Epailea edonor izan daiteke, eta parte hartzeko aukera zabalik dago

Erredakzioa URNIETA

Afaltzera inguratzen diren guttien artean dastatu eta puntuatuko dira sagardoak. Epaile izan nahi duten herritarrek afari txartelak hartu beharko dituzte alde aurretik, afarian zehar egingo baita puntuaketa lana. Afarikide-epaileek ez dute jakingo zein sagardotegitako sagardoa ari diren dastatzen eta bukaeran jakingo dira irabazleak (lote zenbakia) zeintzuk diren, bai finalurrekoetan eta baita finalean ere. Aurten, Euskal Herriko 18 herritako 41 sagardotegik hartuko dute parte Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoian.

Finalurrekoak Beasainen, Goizuetan, Oñatin eta Urnietan izango dira; eta finala Usurbilen datorren irailaren 29an.

Afari-txartelak dagoeneko salgai daude Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen (943 33 68 11) edo info@sagardoa.eus helbidera idatzita; eta baita herriz herriko hainbat lekutan ere.

Zer da epaile izatea?

Afaltzera eseri eta mahaira ateratzen duten sagardoari zure gustuen arabera 5-10 tarteke puntuazioa ematea, ez besterik. Elkartek ohar bidez zabaldu duenaren arabera, “sagardoak dastatzea eta ongi jatea gustuko baduzu, hau da zure txapelketa”.

Puntuazio sistema

Jendea afaltzen hasi orduko hasiko dira mahaira sagardoa ateratzen, eta jendeak lote bakoitza puntuatu beharko du 5-10 tarteke, momentuan iruditzen zaionaren arabera. Ez da jakingo zein sagardotegitako sagardoa dastatzen ari diren mahai-kideak. Finalurreko bakoitzeko lehen bi puntuazio altuenak dituzten sagardotegiak automatikoki pasako dira finalera, eta gainontzeko sagardoak puntuazioaren arabera, hurrenez hurren. Finalaren ondoren bakarrik jakingo da finalistak zeintzuk izan diren eta zein puntuazio lortu duten.

Duela berroigeta hamar urteko ohitura berreskuratu dute

Aurten laugarren urtea du Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak lehengo ohitura bati heldu zionetik: “Historikoki horrelako txapelketak egin izan dira, 1967tik aurrera zenbait txapelketa herriko antolatutako baitzuten orduko sagardogileen elkarteak, herri desberdinekin elkarlanean, eta sare hori berreskuratzea da asmoa. 2015eko txapelketa lehen harria izan zen, eta ordutik sistema hobetuz eta herri zein herritar desberdinak sagardoaren inguruan elkartuz lanean dihardugu”.

IRAILAREN 22AN AZKEN FINALURREKOA ANTOLATU DUTE URNIETAN

Urnietako Batzokian, irailaren 22an

Finala Usurbilen izango bada ere, azken finalurrekoa Urnietan iragarri dago. Batzokian izango da, iluntzeko 20:00tan hasita. Afaria bertako produktuetan oinarrituko da, Gipuzkoako sagardogileen elkarteak, Basatxerri eta Lurlan elkarteek elkarlanean prestatuko dute.

Urnietakoan, honakoa izango da menua (26 euro): Basatxerri lontxeatua, entsalada, ajoarrieroa, xolomoburua eta Idiazabal gazta sagar dultzearekin.

Berrogeita bat sagardogile lehian

Aburuza (Aduna), Aginaga (Usurbil), Akarregi (Hernani), Alberro (Hernani), Alorrene (Astigarraga), Añota (Azpeitia), Araeta (Zubieta), Astarbe (Astigarraga), Astiazaran (Zubieta), Beltzenia (Urruña), Bereziartua (Astigarraga), Calonge (Igeldo), Eguzkitza (Tolosa), Eluxeta (Urnietan), Etxeberria (Astigarraga), Eula (Urnietan), Gaztañaga (Andoain), Goikoetxea (Lizartza), Iparragirre (Hernani), Irigoien-Herrero (Astigarraga), Itxas Buru (Hernani), Izeta (Aia), Larrarte (Astigarraga), Larre Gain (Hernani), Lizeaga (Astigarraga), Oianume (Urnietan), Oiarbide (Astigarraga), Oiharte (Zerain), Ola (Irun), Olagi (Altzaga), Ordo-Zelai (Oartzun), Otsua-Enea (Hernani), Petritegi (Astigarraga), Refuzola (Astigarraga), Rufino (Hernani), Satxota (Aia), Setien (Urnietan), Tximista (Ordizia), Urdairra (Usurbil), Uxarte (Zornotza), Zabala (Aduna).

SORABILLA ETA ELBARRENAKO JAIAK



Ingeles Eskola. Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen



20 URTE baino
gchiagoko esperientzia

ZER ESKAINTZEN DUGU?

- Haur, gazte nahiz helduentzako eskolak.
- Cambridgeko PET-FCE-CAE-CPE azterketatarako prestakuntza, adin guztietako ikasleentzat.
- Enpresei zuzendutako eskolak.
- Eskola partikularrak.

- Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

- Zelanda Berrira bidaiari helduentzako, bertako gidariarekin, 2019ko abuztua eta irailan.



Ondarreta, 7 behea. ANDOAIN. 943 300 839. www.andoainenglish.com

Araoz emakumeen abesbatza Sorabillan

Easo elkarteko emakumeen Araoz abesbatzako kide da Zalóa Lopez de Munain. Irailaren 7an, ostiralarekin, iluntzeko 19:00etatik aurrera emanaldia eskainiko dute Sorabillako elizan.

Andoainen bizi den algortarra da Zalóa Lopez de Munain. Gorra Mirandaren zuzendaritzapean eta Ana Belen Garcia pianoan dela, emanaldia eskainiko dute Sorabillako jaietan.

Ze motatako kontzertua eskainiko duzue Sorabillan?

Konposatzaile erromantikoekin eta euskal folkloreko kantuekin osatutako da emanaldia izango da. Frantsesez eta alemaniarrez gain, euskaraz abestuko dugu, azken piezak Pablo Sorozabalenak dira. Nekez iritsiko da ordebetera. Gomendagarria musikazale guztiontzat!

Zuek Easo abesbatzako partaideak zarete.

Berez, gaur egun, Easo elkarte bat da eta bere baitan, kantu koralaren mota askotako musika interpretatzen duten abesbatza ezberdinak daude. Izaera amateurreari eusten dio elkarteak, eta bere abesbatzekin genero musikal ezberdinak lantzen ditu. Gurea, emakumeen abesbatza da. Easo Abesbatza aipatuz gero, ulertu behar da gizonezkoen abesbatza dela.

Zer nolako ibilbide egin du Araoz abesbatzak?

2004an jaio zen, eta hasierako urteak gorabeheratsuak izan zituen arren, azken aldian indar handia hartu duen eta egunetik egunera hazten doan abesbatza dela esan daiteke. 40 bat ahotsez osatua dago, nahiko gazteak gara guztiok. Partaide gehienak Donostiakoak dira, baina bagaude bizpahiru kanpokoak; esaterako, Ana Belen Garcia eta biok Andoaingoak gara. Kalitatearen ikuspegitik, gizonezkoen Easo abesbatzaren pare edo gainetik dago. Hori horrela esan daiteke, harrokeria punturik gabe.

Eta zein da zure ibilbidea abesbatzen munduan?

Bizkaian iraganean ospe handia eduki zuen San Anton abesba-



Araoz abesbatzako Zalóa Lopez de Munain kantaria. AIURRI

"KALITATEAREN IKUSPEGITIK, ARAOZ GIZONEZKOEN EASO ABESBATZAREN PARE EDO GAINETIK DAGO"

tzaren eskutik ekin nion bideari. Zenbait operetan parte hartu izan dut harrez gero: Trabiata, Tosca, Figaroren ezkontzak... Opera mota horietan figurante edo aktorea ez ezik, abeslari lanetan aritzea ere egokitu izan zait.

Erantzunkizun berezia eragiten dizu horrek, taula gainean mugitzen jakitea eskatzen baitizu, baina tira, antzerkian ibilitakoa naiz eta gogoko dut.

2001an Antonio Calleja andoaindarra ezagutu nuen Bilbon; opera batean biok parte hartzen ari ginela izan zen, ez parranda batean... Eta horrela, 2012az geroztik Andoainen bizi naiz, Antoniorekin eta haurrarekin familia osatuta. Andoainen bizitzan jarri eta agudo Araoz abesbatzan hasi nintzen, bere zuzendari zen Xalba Rallok eskatuta.

Biak abeslariak izanik, etxean-eta beti abesten irudikatzen zaituztegu...

Etxean maiz hasten gara, berdin zaigu opera izan, Pirritx eta Porrotx edo Gozategiren kanturen bat izan... Bada bizilagun bat hurrengo egunean horixe gogorazten diguna, gu entzunez gozatu egiten duela. Hala ere, etxean bertan daukagu etsairik handiena, seme txikiak isiltzeko agintzen digu...

Proposatuz gero, biek eskuz esku emanaldi berezia emateko prest egongo al zinakete?

Baldintzak aztertut beharko genituzke baiezkoa esan aurretik, ikaragarriko errespetua eragiten didan kontua baita. Izan ere, zuzendari baten agindupean eta taldearen babesean kantatzera ohituta nago. Gogoan dut behin, kantu kalejira batean Irunberri elkartearen ginela, Antonio eta bioi bikote gisa kantatzea egokitu zaitzaigula, *Goizian argia hastian* abestiarekin. Bada, bizitza osoan ez dut hainbeste lotsa pasa! Begiak ireki ezinik aritu nintzen kanta osoan! Ohi-turagatik, operako tonu altu hori egitera jo nuen, kantu kalejirako tonu naturaletik urrun.

Askoren artean hiru hitzordu



"Kalean otso, etxean uso" ikuskizuna larunbat arratsaldean. PATATA TROPICALA

Haur antzerki emanaldia larunbat arratsaldean Patata tropikala konpainiaren eskutik: "Azken uneko Notizia! Hiru txerri txerriak desagertu dira! Egunkarietan berria zabaldu da! Herri guztiak, Otsoa errudun dela esaten du..."



Joxe Mari Oizartzabal musika zuzendaria eta sortzaile nekazina. AIURRI

Oizartzabali omenaldia igande eguerdian Maila handiko eta ibilbide oparoko musikari eta sortzail ea dugu Joxe Mari Oizartzabal. Sorabillako jai batzordeak aurtan hari eskainiko dio herri omenaldia.



Sagardo dastaketa eta kantujira igande arratsaldean. AIURRI

Sagardo dastaketa igande arratsaldean Hamaika sagardogileren edariaz gozatzeko aukera izango da: Aburuza, Zabala, Gaztañaga, Sarasola, Rufino, Lizeaga, Setien, Petritegi, Elutxeta, Urdaira eta Ola.

SORABILLAKO JAIAK IRAILAREN 7TIK 9RA

IRAILAK 7

OSTIRALA

18:00 Txupinazoa.

18:30 Iturzaeta memorialaren bi finalen errebantxak.

20:00 Araoz abesbatza elizan.

21:00 Zikiro jatea eta Los Rubi.

02:00 Txokolatea eta bizkotxoa.

IRAILAK 8

LARUNBATA

09:30 Belkoango mendi lasterketa.

11:00 Haur lasterketa.

11:30 Meza elizan, Alberto Agirre abesbatzarekin. Ondoren hamaiketakoa.

16:00-20:00 Puzgarriak eta haur jolasak.

17:00 Erretoretxean ate irekiera jardunaldiak.

17:30 Haur antzerki emanaldia. Patata tropikala taldea.

19:30 Sardin jatea.

20:00-21:00 Alaiki taldea zuzenean. Txosnagunean bokadilloak salgai izango dira.

22:00-02:00 Alaiki zuzenean.

IRAILAK 9

IGANDEA

11:30 Auzoko eskopeteroak eta Aupa Sorabilla txaranga.

12:15 Herri omenaldia Joxe Mari Oiartzabal musika zuzendariari.

17:30 Andoaingo auzoen arteko herri kirolak.

18:30 Sagardo dastaketa: Aburuza, Zabala, Gaztañaga, Sarasola, Rufino, Lizeaga, Setien, Petritegi, Elutxeta, Urdaira eta Ola. Kantujira taldea.

22:00 Jaien amaiera.



IZAN KONFIANTZA GUGANI!

**ACADEMIA IDIOMAS
G.F ANDOAIN**
Tel.: 943 591 508

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Ondo pasa festetan!

www.academiagfandoain.com

- Gure ardatza Cambridge azterketak dira.
- Maila guztiak: STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET, FIRST, CAE...
- 2018ko uztaileko azterketatan %88 gainditua CAEn eta %88a First-en.
- STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET azterketatan %100 gainditze tasa.
- Taldeak goiz eta arratsaldean.
- Talde txikiak.
- Speaking klaseak.
- 4 edo 5 urtetik aurrera.

**Galardi 10, 1A
etorri edo
deitu**

**Joseba
AROTEGIA**

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

itasa

Sorabilla auzoa, 218
20140 Andoain
Tel.: +34 943 30 40 70
Faxa: +34 943 59 41 31
info@itasa.es

Ondo pasa festak!

Uda beteko giroa Goiburuko jaietan

Primerako giroan igaro dira aurtengo San Esteban jaiak Goiburu auzoan: kirol saioak, musika emanaldiak, otorduak... eta, batik bat, jende parte hartzailea eta umore ona



Lehen orduan euria egin arren, oilasko biltzaileek ez zuten umore ona galdu. SEGA

Erredakzioa ANDOAIN

Usadiozko oilasko jokoarekin ekin zieten jaiari auzotarrek, San Inazio egunean. Jaiak emankorrak izan ziren, adibidez, kirol arloan. Larunbatean, hilaren 4an, Malkar krosaren edizio

berria osatu zuten; korrikalariak bero zakarrari egin behar izan zioten aurre, Leitzarango ubiden barrena edota Onddolar mendian gora. Arratsaldean, Andoaingo bost auzoen arteko herri kirol lehia jokatu zen. Segar desafiara

makina bat ikusle hurbildu ziren; Buruntza irten zen garaile, baina goiburuarrek ere erakustaldia eman zuten. Igandean, pala txapelketako finalera herrikide ugari hurbildu zen. Jaiak zapo- gozoa utzi du denen artean.



San Inazio egunez, uztailearen 31n, oilasko biltzean parte hartu zuen taldea Txertota jaietxean. SEGA

GORA ETA BEHERA



Bertan egindako garagardoa

Indarra hartzen ari da han eta hemen, tokian toki lantzen den garagardoa. Artisautza lan horretan murgilduta daude, esaterako, Olajaunako lagunak. Goiburun dastatzeko aukera izan zen.



Gazteen kopurua ez zen batere eskasa izan. SEGA



Trikitilari gazteak oilasko biltzean, eguerdian. SEGA



Goiburuarrek etxeberritarrei bisita egin zieten, haien egun handian. SEGA



Larunbat arratsaldeko erromerira lagun ugari hurbildu ziren, sega desafioa amaitu eta gero. AIURRI



Zikiro jatea prestaketa luzea eskatzen duen otordua da. AIURRI



Mus txapelketa abuztuaren 3an, San Esteban egunean. AIURRI



Loidi II-Ceballos nagusi pala txapelketako finalean

Loidi II eta Ceballos bikotea nagusitu da aurtengo Goiburuko pala txapelketan. Finalean Loidi I eta Amondarain 25-22 mendean hartu zituzten, igande eguerdian Goiburuko pilotalekuan jokatu zen finalean.

B finalean irabazi eta gero, Torregarai eta Borrerok osatutako bikoteak hirugarren postua eskuratu zuen txapelketan. Agirre-Iradi bikotea 25-23 garaitu zuten. Ikusmin berezia pizten duen lagunarteko lehia da

Malkar krosaren edizio berria



Aurtengo podiuma. Tartean dira Jon Ugalde eta Lourdes Colomo. AIURRI



Fernandez hernaniarra, Muñoz asteasuarra eta Arberas andoaindarra. AIURRI

1 Ekaitz Kortazar	43:12	Durango	34 Imanol Otermin	57:04	Aduna
2 Aitor Etxeberria	43:20	Igeldo	36 Rober Trutxuelo	57:09	Andoain
3 Jon Ugalde	44:31	Andoain	39 M.Etxezarreta	58:11	Urnieta
6 Ivan Piñon	46:54	Andoain	40 Igor Larrañaga	58:18	Andoain
8 Aritz Mujika	48:27	Andoain	41 J.Santano	58:28	Andoain
11 Iban Muñoz	49:13	Andoain	42 Unai Arberas	58:48	Andoain
12 Oier Escudero	49:27	Andoain	43 Xabi Muñoz	58:48	Asteasu
14 Iker Mujika	49:56	Andoain	45 Alberto Brea	59:07	Andoain
16 Sergio Garcia	50:45	Andoain	47 Urtzi Uztarroz	1:00:13	Andoain
17 Jaime Real	50:56	Andoain	48 A.Rodríguez	1:00:33	Andoain
20 Mikel Eguren	52:08	Andoain	55 Antonio Tena	1:03:32	Andoain
22 Asier Ceballos	53:43	Andoain	56 Urko Cisneros	1:03:32	Andoain
24 Lourdes Colomo	54:13	Zizurkil	59 Luis Lopez	1:04:45	Andoain
25 J.M. Flamarique	54:18	Andoain	60 Ander Lopez	1:04:47	Andoain
26 Josu Arregi	54:59	Andoain	61 Javier Morales	1:05:54	Andoain
27 J.Luis Calvo	55:03	Andoain	62 Ander Guerrero	1:07:06	Andoain
28 Iñaki Blanco	55:03	Andoain	66 Javier Gallo	1:11:29	Andoain
30 Igor Esnaola	55:43	Andoain	67 Alex De Lucas	1:12:21	Andoain
31 Aritz Iginitz	55:54	Andoain	68 Dani Enriquez	1:12:42	Andoain
33 Urko Otaño	56:59	Andoain	69 Arantxa Ruiz	1:13:02	Andoain



Javier Morales Morgan Onddolarako bidean. AIURRI



Abuztuaren 4an ikusmin handia piztu zuen sega desafioa egin zuten Goiburun. Argazkian lehian parte hartu zuten kide guztiak, behin saioa amaituta. AIURRI

Auzoen arteko herri kirol lehia bizia auzoko jaietan

Uda honetako auzoko jaietako berrikuntza nagusia izan da auzoen artean antolatatu den herri kirol ligaxka. Lagunarteko giroan, ikusmina sortu da hitzordu bakoitzean

Erredakzioa ANDOAIN

Auzoen arteko herri kirolen lehiaketa ari da jokatzeko azken hilabeteetan Andoainen. Sorabillako jaietan erabakiko da aurtengo irabazlea. Lau kirol jarriko dira lehian Sorabillako plazan: soka-tira, txingak, txokotara frontoian (eskuz zein palaz) eta zaku karrera (15 kiloko zakua). Proba horietan erabakiko da aurtengo irabazlea; 500 euroko saria dago jokoan.

Auzoz auzo herri kirolen lehia antolatzeko erronkari heldu zioten jai batzordeek urte ha-

sieran. Hiru helburu jarri zituzten orduan, etorkizunari begira: auzoen arteko harremanak areagotzea, auzoetako jaiak indartzea eta herri kirolak zabaltzea. Bada, hirurak ere nahiko txukun betetzen ari dira. Bost auzo izan dira lehiaketan parte hartzera aurtur animatu direnak: Santa Krutz, Etxeberrieta, Goiburu, Buruntza eta Sorabilla. Partaideek hainbat probatan neurtu behar izan dituzte indarrak: arrauna (ergometroa), sega, harria jasotzea, trontza, soka-tira, txirrinka...

Antolatzaileak pozik dira orain arteko saioetan eman den parte hartzeagatik eta sortu den giroagatik. Izan ere, kontuan hartu behar da auzoetako jaiak kasu gehienetan opor garaian izaten direla eta zenbait proba ez direla oso errazak gertatu hasiberrirentzat (sega, harri jasotzea, txingak...).

Aurreneko aldia izan da Andoainen antolatzen dela antzeko lehiaketa, eta orain arteko emaitzak ikusita, ez dago zalantzarik datozen urteetan ere jarraipena izango duela.



Juantxo Lopez de Munain eta Malou Henriksen Goiburuko sega desafioan. AIURRI



Jexux Mari Aiertza eta Mikel Jauregi Goiburun. Erakustaldia eman zuten. AIURRI

Bost auzune lehian, Santa Krutz jaietan hasi eta Sorabillako jaietaraino



Santa Krutz Xabier Pernas, Malou Henriksen, Roger Aira, Antton Arruti, Ekaitz Olló, Aritz Eskudero, Aritz Otermin eta Andoni Alvarez.



Buruntza Joxi Telletxea, Mikel Jauregi, Jon Jauregi, Jon Arregi, Jon Jauregi, Axier Gaztañaga, Urtzi Nazabal, Naia Madinabeitia, Ainhoa Aiertza eta Miren Domingez.



Etxeberrieta Lourdes Venero, Mercedes Perez, Alba Murillo, Uxue Marzol, Paula Gomez, Juan Carlos Jofré, Javier Urkia eta Fatima Caño.




San Esteban-Goiburu Extebe L.Muniain, Imanol Usandizaga, Garazi Usandizaga, Unai Ormaetxea, Lili Zubeldia, Aitor Morales, Rober Brosa eta Miren L.Muniain.



Sorabilla Koldo Ponce, Igon Garaikoetxea, Eneko Urruzuno, Iker Gonzalo, Xabier Alkorta, Iurgi Mujika, Oier Otamendi eta Iosu Arabaolaza.



Ikuslegoa Lehian aritu diren bost auzuneetako partaideez gain, ikuslegoa ezinbestekoa izan da hauspoa emateko lehiari. Animoak gogotik eman dizkiete, lehiakide guztiei.



Buruntzako jaietan harria jasotzen eta harriari tiraka aritu ziren. Argazkian, hurrenez hurren, Goiburu, Buruntza, Sorabilla eta Etxeberrietako taldekideak. AIURRI

Pako Agirre auzokideari omenaldia Etxeberrietan

60ko hamarkadan futbol jokalaria fina izan zen, Euskaldunan eta Alavesen aritu zena. Entrenatzaile lanetan jarraitu zuen gero, Andoainen eta Hernanin



Pako Agirre senideez inguratutik, Etxeberrietako jai batzordeak eskaini zion omenaldi ekitaldian. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Pako Agirre Aranalde sortzez tolosarra da, baina gaztetan hurbildu zen Andoainera. Etxeberrietarra sentitzen da, bere hitzetan. Ordukoan auzoan zegoen futbol zelaian orduak eta orduak

eman zituen, gazte garaiko zaletasuna heldua izatean pasio bilakatu arte. Euskaldunako jubenil taldean hasi, eta bertan egin zuen ia ibilbide osoa, tartean bi urtez Alaves taldean aritu zelarik. Jokalaria izateari utzi

ziane, entrenatzaile ibilbideari ekin zion. Euskaldunaren ibilbidean, beraz, Agirre bada norbait. Auzotarren txalo zaparrada jaso zuen Etxeberrietako jaietan. Hunkituta eta eskertuta agertu zen.



Zizurkilgo Lourdes Colomo eta Urnietako Juan Luis Gomez nagusitu ziren Cabrejas Memorialean. AIURRI

GORA ETA BEHERA



Etxeberrietako auzotarren bazkaria

Antolatzaileak pozarren zeuden azken urteotako parte hartzerik handiena lortu zelako. Badirudi haur txikiak dituzten familiak ere gerturatzen ari direla. Biziberritzea, bizitzaren legea.

Danborrada auzoan zehar



Aita Larramendi kaletik abiatu zen danborrada, Belabi aldera joateko. AIURRI



Gazte eta heldu, gizonezko eta emakumezko, talde polita osatu zuten. AIURRI



Auzoan barrena danborradan ibili eta gero, helduek afaria egin zuten. AIURRI

Jai batzordearen aitortza Iturralde Zabala sendiari

Buruntza auzoko familiak urteak daramatza auzora hurbiltzen diren korrikalarietara eta ikusleei jatekoa eskaintzen, musutruk

Xabier Lasa ANDOAIN

Lasterketa ez da goiko aterpeko sari banaketa eta hamaiketakoarekin amaitzen. Ondoren, Buruntzatik jaisten direnek bada-kite auzoan bigarren hamaiketako zain dutela. Aurtengo lasterketa hasi aurretik jai batzordeak oroigarria eskaini zien Iturralde Zabala familiari. Abenduan zendu zen Bittori Zabala Zalakainen argazkia ageri da bertan, bi bertsorekin batera:

*Zure umore ona
guretzat opari
itxura ona eta
burua beti argi,
esker ona besterik
guregandik zuri.
Bihotzean zaitugu
benetan Bittori.*


*Guregandik joanda
auzoko Bittori.
Zuk eskainitakoa
Buruntza auzoari,
etzaiagu ahaztuko
gutako inori.
Agur eta ohore,
maitasunez zuri.*



Bittoriren hiru alaba (Mari Mertxe, Rosarito eta Mari Karmen) eta Fernando Iturralde, Jai Batzordearen eskutik jaso duten oroigarria eskuetan dutela. AIURRI

Oroigarria Bittori Zabala gogoan
Bittori Zabalaren alaba den Mari Karmenek adierazi duenez, hamaiketakoaren ekimena familiako den Joakin Murua eta bere lagunei sortu zitzairen orain hamabi bat urte, eta familiako kide ugariaren eta lagunaren laguntza izan dute harrezkero; koadrila ederra biltzen da antolaketan, batzuk sukaldean eta besteak jakiak eta edariak zerbitzen.

Lasterketa bukatu ostean, Buruntzako gailurretik jaisten diren korrikalari eta ikusleek biziki estimatzen dute Iturralde Zabala familiak prest izaten duen detailea, eta Bittorik berak gozaten zuen une horrekin: "Batekin eta bestearekin hitz egin, oso gustukoa zuen jendearekin egotea. Bere gogoia hamaiketakoari eustea izango zela jabeturik, halaxe egin dugu aurtengoan".



Baserriz baserri ibili ziren. AIURRI



Harrera bikaina egin ohi diete oilasko biltzaileei auzoko etxe eta baserrietan. AIURRI

Oilasko biltzearen usadioa biziberritu zuten

Goizean goiz abiatuta, auzotar talde batek oilasko biltzearen usadioari eutsi zion. Lehen orduan abiatu eta baserriz baserri ibili ziren giro alaietan, baserri eta etxe

atari bakoitzean dantza eginez. "Auzotar askori bizipoza ematen dion eguna da", Mikel Jauregi auzoko gazteak gogoratu zuen bezala.

GORA ETA BEHERA



62 korrikalari ibilbide malkartsuan

Lourdes Colomo, Eneida Alonso eta Ana Rodriguez iritsi ziren lehenak, emakumezkoetan. Gizonezkoetan, berriz, Aitor Regillaga, Asier Gonzalez eta Xabier Satrustegi.

Herrikide asko San Roke egunean



Meza, bertsoak, toka eta dantza izan ohi dira San Roke egunean. AIURRI



Auzotar eta andoaindar ugari hurbiltzen da ospakizunera. AIURRI



Toka txapelketa, eguneko osagarrietakoa. AIURRI

Aurpegi berriak Festa batzordean

Hamalau urte inguruko gazteak gogotsu sartu dira Zizurkilgo Festa batzordean. Proposamen eta ideia berriak ekartzeaz gain, lanerako gogoia badutela erakutsi dute



Maitane Dorronsoro eta Jugatz Urruzola zizurkildarrak. AIURRI

Ainhoa Gil ZIZURKIL

Festa batzordean sartu berri diren gazteetako bi dira Maitane Dorronsoro eta Jugatz Urruzola zizurkildarrak. Euren koadrilan, aspalditik izan dute proposamen berriak egiteko gogoia, "eta aurten, Festa batzordean parte hartzea erabaki dugu. 14-15 urte inguruko koadrila

handia osatzen dugu, eta beti parte hartu izan dugu Zizurkilgo festetan antolatzen diren hainbat ekitalditan. Beste herrietako festetan ikusten ditugun ekitaldiak gurera ekartzeko gogoia sortzen zitzaigun behin baino gehiagotan, eta aurten, Festa batzordean parte hartzera animatu gara".

Jaiak, barrutik

Martxoan egin zuten lehen bilerara. "Geroztik, astero bildu izan gara. Ekaineko koadrilan eguna antolatzen aritu ginen lehendabizi, eta Elbarrenako festekin hasi ginen ondoren", azaldu du Maitanek. "Jaiak beste modu batera ikusten hasteko modua eman digu batzordean parte

hartzeak. Atzetik dagoen lanaz kontzienteago gara orain", gaineratu du Jugatzek.

Orain arte, egitaraua etxeko buzoian jaso arte itxaron behar izaten zuten jaietan zein ekitaldi egongo zen jakiteko. Goitik behera aldatu da hori: "Egitaraua osatzeko lanean parte hartu dugu aurten, badakigu zein ekitaldi dagoen egun bakoitzean eta baita zergatik erabaki den horrela egitea ere", azaldu du Maitanek.

Kolore festa

Irailaren 7ko ur eta kolore festa, esaterako, gazteen proposamena izan zen. "Polita izan zitekeela iruditu zitzaigun. Ur festa egingo dugu lehendabizi, eta parte-hartzaileak busti-busti eginda daudenean, koloretako hautsa botako dugu. Oso ekitaldi polita da, jostagarria". Festetako ekitaldia iritsi aurretik, froga egin dute gazteek: "Fraisoro aldera joan ginen egun batean. Ederki pasa genuen eta ekitaldia festetan egiteko modukoa zela iruditu zitzaigun. Arropa zuria jantzita joateko gomendioa ere zabaldu dute, "modu horretan koloreak ondo ikusten direlako, bizi-bizi". Festa amaituta, arropa erraz garbitzen dela ere jakinarazi nahi izan dute.

Jolasak

Beste proposamen potolo bat ere egin nahi izan dute aurten-egun festetarako: "Urte batzuk ziren koadrilan bazkariaren ondoren jolasak egiten ez zela.

"JAIK BESTE MODU BATERA IKUSTEKO MODUA EMAN DIGU BATZORDEAN PARTE HARTZEAK"

Gu umeak girela egiten ziren, eta gogoia genuen oso giro polita sortzen zela. Jendeak hobeto pasatzen du ekitaldi parte-hartzaileak direnean. Jolasak berreskuratzeko proposamena luzatu genuen, eta aurten, irailaren 8ko bazkariaren ondoren izango dira", azaldu du Jugatzek.

Inkesta

Herritarren ideiak kontuan hartzeko ahalegin berezia ere egin dute gazteek. "Badakigu Festa batzordean parte hartzen ez duen askok badituela festetarako proposamenak. Horiek jasotzeko asmoz, inkesta bat sortu genuen, eta sare sozial bidez zabaldu. Erantzun asko jaso genituen. Tartean, koadrilan arteko jolasak berreskuratzeko gogoia bazegoela nabarmen geratu zen", azpimarratu dute.

Lanerako gogoia

Festa Batzordeko bileratan parte hartu dute gazteek, eta lanerako ere badaudela erakutsi dute. "Zumbatoian talo postua jartzeko asmoa dugu. Irailaren 7an berriz, disko festa egingo da Azken Portu auzoan. Aspalditik egon da jai auzo ezberdinetara zabaltzeko gogoia. Ubaren eta Aurreran egiten dira zenbait ekitaldi, baina Azken Portun ez dago tabernarik eta hori oztipoa da. Horregatik, barratxo bat jarriko dugu, pintxo batzuk jan eta zerbait hartzeko aukera emateko".

Gazteei gonbita

"Festak ez dira ezerezetik sortzen. Lan handia dago atzean, eta hori egin ezean, ez legoke festarik. Gazteei Festa batzordean parte hartzeko esan nahi diegu, oso giro ona egoten da eta merezi du gerturatzea", azpimarratu dute bi gazteek.



ELBARRENAKO JAIK IRAILAREN 4TIK 9RA

IRAILAK 4

ASTEARTEA

19:00 Zizurkilgo XI. Kros mistoa. Neska-mutuez osatutako bikoteentzat. Ondoren barrikotea Joxe Arregi plazan.

ezberdinetan zehar lan egin duten emakumei eskainia. Buruhandiak eta txaranga.

21:30 Herri afaria Atxulondo eta Pasmus jatetxeen eskutik.

02:00 Karaokea.

19:30 Patata tortila lehiaketa. Ondoren dastaketa.

22:00 Bertso-saioa: Amaia Agirre, Beñat Iguaran, Oihana Iguaran, Unai Mendizabal, Aritz Mujika. Gai-jartzailea: Igotz Alkorta.

IRAILAK 8

LARUNBATA MOZORRO EGUNA

11:00 Haur jolasak.

14:00 Herri bazkaria. Segidan, postre lehiaketa eta bingoa.

18:00 Blusen arteko jolasak.

19:15 Goitibera jaitsiera, Fraisorotik behera.

20:00-21:30 Dantzaldia: Laket.

23:30 Dantzaldiaren jarraipena. Jarraian, mozorro lehiaketa. Ondoren DJ Gatzet eta DZ.

08:00 Diana.

IRAILAK 9

IGANDEA

11:00 Sardina eta sagardo dastaketa.

12:00 Meza.

12:45 Euskal dantza ikuskizuna Bukalai taldearen eskutik.

13:30 Jubilatuen jolasak.

14:30 Jubilatua bazkaria.

16:00 Joxe Arregi Mus Txapelketa.

16:30 Erraldoi eta buruhandi konpartsa. Ateri balego irteera Ugareko parketik.

Ogitarteko iluntzea Bakoitzak bere ogitartekoa ekarrita afaria plazan; mahaia eta aulkiak egongo dira.

20:30 Melokotoi sariak.

21:30 Tocan2 La Polla musika taldearen emanaldia.

23:00 Melokotoiari agurra.

IRAILAK 5

ASTEAZKENA

19:00 Zumbatoia. Herriko Zumba taldeak gidatuta.

20:00 Txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena, Jai batzordean belaunaldi

IRAILAK 6

OSTEGUNA

11:30 Hurrei eskainitako sukaldaritza tailerra.

17:00 'Txarlestrup' akrobazia eta dantza ikuskizuna, Aurrera plazan. Txokolatada. Jarraian buruhandiak Joxe Arregi plazan.

IRAILAK 7

OSTIRALA GAZTE EGUNA

11:30 Ur eta kolore festa. Kamixeta txuria eramatea komeni da.

14:30 Gazte bazkaria Joxe Arregi plazan. Gazte jokoak.

18:00 DJa Azken Portu auzoan.

Jaiaren jarraipena www.aiurri.eus gunean



Egitaraua eta albisteak



Argazki-bildumak



Bideo-sorta

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



EDARITEGIA
Egarrri
Ondo pasa festetan!
Ernio bidea, 7 F. Zizurkil. 943 696 257

JOXEAN
HARATEGIA
BASERRIKO HARAGIA
URDAITEGI BEREZIA
Jaietan ere on egin!
Bulandegi bidea, I. Zizurkil. 943 696 242

Zizurkilgo txupinazoa emakumeen eskutik

"Txupinazoaren bidez, isil-isilean, inongo erantzunen esperoan egon gabe lan egiten duen orori egingo diogu omenaldia"



Aizpea Zabala eta Nati Navas jaien hasierako txupinazoaz arduratuko direnetakoak, Joxe Arregi plazan. AIURRI

Amaia Senperena ZIZURKIL

Jai batzordean parte hartu duten eta parte hartzen ari diren emakumeek botako duzue aurtengo txupinazoa. Zer dela eta?

Nati: Moduren batean azken urte hauetan zehar herriko jaiak antolatzen ibili diren emakumeei omenalditxo bat egin nahi genien eta horrela sortu zen ideia.

Aizpea: Txupinazo honekin, jai batzordean parte hartu duten eta izan duten emakume guztiak omendu nahi ditugu. Zaila da guztiekin harremanetan jartzea, baina ahaleginak egiten ari gara guzti-guztiak identifikatzeko. Oholtzara igoko ez diren emakume parte-hartzaileak ere omenduko ditugu.

Omenaldiak festetan egingo den beste ekintzaren batekin zerikusia izango al du?

Nati: Ez, txupinazoa lehen koadrilaka botatzen zen eta badira lauzpabost urte txupinazoa pertsona zehatz batzuei botatzeko eskaera egiten zaiela.

Urte guztian zehar txupinazoa bota duen pertsona, elkarte edo

dena delakoak aginte makila deitzen diogun lekukoa gordetzen du eta hurrengo urtean txupinazoa botako duenari pasatzen dio.

Egia da aurten oholta gainean egongo garenak emakumeak izango garelarik, aginte makilarena ez zaidala aproposena iruditzen. Gu errepresentatzen gaituen irudia zaintza lana izango litzatekeelako.

Iruditzen zait jaietan ematen diren lan horiek gabe, jaiak ez liratekeela aurrera aterako. Adibidez, gaupasa egin ondoren etxera joan, eta norbaitek ez balu janaria prestatuko edo arropa garbituko, ez legoke festarik.

Nolabait agintea egon bada-goelako, baina zaintza lan hori gabe aginterik ez legokelako.

Aizpea: Eta borroka. Pentsatzen jartzen bagara, azken urte hauetako Festa batzordeko gehienak emakumeak gara eta hori ez da plazan isladatzen.

Pertsonalki zer da zuzentako txupinazoa botatzea?

Aizpea: Ni hunkitu egiten naiz. Omenduko ditugun emakumeek benetazko aitorten bat behar dutela esango nuke. Isil isilean inongo erantzunen esperoan lan egiten duen orori egiten baitiegu omenaldia txupinazo honekin. Herriari asko eman dion jendea dago multzo horretan.

Nati: Nik ez dut zalantzarik. Nabaritzen dut jaietako diskurtsoa aldatzen ari dela, baina jarrerak ez horrenbeste. Niri ez litzaidake hau guztia omenaldi xume batean geratzea gustatuko, orain da jarrerak aldatzen hasteko unea.

Programari dagokionean, aurten bai al dago berrikuntzarik?

Nati: Bai, oraindik festak ez ziren ere, emakumeen errugbi-a ikusteko aukera izan zen jaien atarian.

Aizpea: Horrez gain, goitiberak, gaztetxoek DJ-a,... Gainera, festen ostean, ekintzetara gerturatu den jendearen azterketa egitea ere pentsatu dugu. Hau gehienbat, genero eta adinaren aldetik izango da. Datorren urtera begira, ekintzen inguruko balorazio bat egiteko alegia.

"OHOLTZARA IGOKO EZ DIREN EMAKUME PARTE-HARTZAILEAK ERE OMENDUKO DITUGU"

Nori zuzendutako egitaraua egiten saiatu zarete?

Nati: Oso zaila da jaietako egitarau feminista egitea. Oso ondo baitago errugbian jolasten duten emakumeak ikustea, baina nik herriko mutilek parte hartuko luketen ballet erakustaldi bat gustura ikusiko nuke. Errugbiarekin batera herriko emakumeentzako entrenamenduak baitaude. Emakumeok gizonetzkoen mundura jo behar dugu, errugbira, boteredun kirolera.

Alderantzizkoa denean ordea mutilek bazterketa jasaten dute; gimnastika erritmikoan adibidez. Horretaz, ordea, ez da hitz egiten. Beraz, mutilak "neskenak" diren kirolean parte hartzea ere animatu nahiko nituzke. "Gizonetzkoen" kirolean ibiltzen diren emakumeen erakustaldiak ez ezik "emakumezkoenak" bezala mugatu diren kirolean mutilak ikustea ondo legokelako.

Kontzertuetan normalean apustu handia egiten duzue, ezta?

Aizpea: Saiatzen gara gazteen gustuko taldeak ekartzen eta aipatu beharra daukat bertan asko nabaritzen dela bizitzen ari garen belaunaldi aldaketa. Askotan gure adineko jendeak ez baitaki orain puri-purian dauden taldeen berri. Horregatik, aurten 14-15 urte bitarteko koadrila bat hasi da bileretara etortzen eta beharrezkoa dela iruditzen zait. Beraien ikuspuntua ezinbestekoa baita guztiontzako festak antolatzeko garaian.

Zer esango zeniekete herritarrei herriko ekintzatan parte hartzea anima daitezen?

Aizpea: Guztion parte-hartzearekin festak politagoak direla esango nieke. Guztiok dugula festetan ondo pasatzeko eskubidea, beraz, jarrerak ere horrelakoak izan daitezela.

Nati: Nik bereziki emakumezkoek egingo nieke deia. Plaza eta espazioa guztiona baita, eta espazioa hartzen erakutsi ez digutenez plaza gureganatzen ikasi behar dugula. Jaiak ondo pasatzeko direla, dantzatzeko, jolasetan parte hartzeko eta lotsak utxian utziz, benetan disfrutatzen hasteko.

Askotan amestu dut bakoitza den bezalakoa izan daitekeen jaiekin, zer esango dutenaren beldurrik gabe, libre. Festa hauek dira horretan hasteko momentu polita.

Andoaingo AEK Euskaltegia

Matrikula epea IRAILAREN 3tik 26ra
Maila guztiak A0, A1, A2, B1, B2, C1-EGA

Ordutegi zabala:

Golzean | Eguerdian | Arratsaldean | Iluntzean

ESKAINITZA ZABALA

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Alfabetatze klaseak · Guraso taldeak · Autoikaskuntza

Etorritzenzat AISA ikastaroak

Diru-laguntzak: %85

aek euskara praktikoa

Zu hemen zaude,
AEK ere bai

Euskara
ikastaroak

Informazio orokorra:

Plazaola 2, Andoain

943 59 17 04 · andoain@aek.eus



Miren Arregi ARRASATE

Joan zen uztailaren 27an, euskarazko komunikabide digital berri eta berritzaile bat jaio zen. Ttap izenekoa, eta, irailetik aurrera, astero iritsiko da, doan, irakurleen poltsikoetara. Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat hedabide dira aldizkari digitalaren bultzatzaileak: Tokikom eta Esguard (Bartzelona), Goiena, Anboto (Durangaldea) eta Baleike (Zumaia). Astero bi edizio izango ditu Ttap-ek: bat Bizkairako eta beste bat Gipuzkoarako.

Digitala, multimedia eta gertukoa

Aldizkari digitala eta multimedia izango da, eta eskuko telefonoetan eta tabletetan irakurri, ukitu, ikusi eta entzun ahal izango da. Izan ere, "edukiak hainbat formatu eta euskarritan landuko ditu, erabiltzaileari esperientzia atsegin eta interesgarria eskaintzeko. Hau da, testuekin batera, bideoak, audioak eta eduki interaktiboak egongo dira", azaldu du hedabide berritzaile horren zuzendari Monika Belastegik.

Edukiari dagokionez, gertuko gaiak landuko ditu, modu azkar eta erosoan kontsumitzeko moduan, baina eguneroko presatik ihesi. "Batez ere, inguru urbanoan eta garraio publikoan kontsumitzeko egingo dugu, telefonoa aldean hemendik hara dabiltzan horientzat", dio Belastegik. Hamasei orrialde edo pantaila izango ditu eta ordu laurdenean irakurri ahal izango da. Edukietan sakondu nahi duenak beti izango du horretarako aukera, mimo handiz landutako audio eta bideo piezen bidez". Izena bera, ingeleseko Tap – mugikorreko pantaila ukitzeari horrela deritzo– hitzari tiraka osatu da. "Euskaraz ez zegoen antzeko berbarik eta Ttap bururatu zitzaigun".

Kataluniakoekin elkarlanean

Ttap-en oinarria Kataluniako Esguard aldizkaria da. Hark sei urteko ibilbide oparoa du. "Publikoak oso ondo erantzun dio, han, formatu berri horri. Esguard-en azken urteetan pilatutako esperientzia Ttap-en baliatu nahian, elkarlanean oinarritutako proiektua jarri dugu martxan", azaldu du Belastegik.

Kolaboratzaile zerrenda zabal eta plurala izango du: Sara Gandara, Xabi Paya, Ilaski Serrano,



Ttap aldizkari zuzendari Monika Belastegi, aldizkariaren lehen zenbakiko bi edizioak erakusten. JAGOBA DOMINGO

'Ttap', aldizkari digital berria eta berritzailea

Eskuko telefonoetan eta tabletetan irakurri, ukitu, ikusi eta entzun daiteke 'Ttap', aldizkari multimedia berritzaile aberastua. Uztailaren 20an kaleratu zen zero zenbakia, eta bi edizio izango ditu: bat Bizkairako eta beste bat Gipuzkoarako

Juan Kruz Lakasta, Jon Ander Ubeda eta gehiago arduratuko dira asteroko elkarrizketa nagusia gidatzeaz. Iritzi emaile lanetan arituko dira, bestetik, Izaro Andres, Pilar Kaltzada, Joseba Sarrionandia, Axi Muniain, Arantxa Urretabizkaia, F. Javier Arrieta eta beste asko.

Nola deskargatu

Ttap aplikazioa eskuragarri dago App Store-n eta Google Play-n. Horretarako, helbide bat prestatu dute: www.labur.eus/ttap. Bestalde, www.ttap.eus webgunetik bertatik ere egongo da aldizkaria jaisteko aukera. Abuztuaren 31ra bitartean aplikazioa deskargatzen zuten guztiak tableta baten zozketan sartu ziren.



Andrey Amador, Pavel Kochetkov eta Mikel Iturria abuztuaren 29ko eguneko ihesaldian. EUSKADI-MURIAS

“Bigarren astea, onena guretzat”

TXIRRINDULARITZA Mikel Iturria Urnietako txirrindulariak gustura hartu du Espainiako Vueltako lehen atsedeen eguna. Bere hiru asteko lehen itzuli handia du, eta beroarekin errepidean adina sufritu omen du Euskadi-Murias taldekoak

Andoni Urbistondo URNIETA

Gustura da Iturria urnietarra (26 urte) Salamancako hotelean, eguneko entrenamendu arina hasi aurretik. Vueltako lehen atsedeen egunean lehen hamar egunetako balantzea egiteko eskatuta, konforme agertu da: “Orokorrean gustura nago. Jakina, taldeak garaipenen bat lortu izan balu, askoz hobeto, baina txukun ari garela esango nuke”. Bero ikaragarria pasa dute, eta ondorioz, majo sufritu: “Lehen bi egunetan ikaragarria izan zen. Gorputza erabat hus-

tuta uzten dizu, eta erritmoa igotzen, edo estutzen saiatzen zarenean, ezinean geratzen zara”.

Izan omen dituzte egunak, non 5-6 ordu 40 graduko tenperaturarekin egin dituzten: “Etapak osoa, eta gero bizpahiru gehiago ostaturaino... Agobiatuta bukatzen duzu eguna, zauden tokian zaudela bero handia egin duelako”. Hainbestera izan da, Iturriak euria bera bota duela faltan: “Bai, asko. Errepidea beti da arriskutsuago bustita dagoenean, baina euriak freskura dakar berarekin, eta

egunen batean tantaren batzuk bota izan balitu asko poztuko nintzateke”. Familia eta ezagunak ere faltan bota ditu, “baina igandean La Covatillan egon ziren, familia eta koadrilako lagun batzuk, eta indarberritu naiz”.

Euskadi-Murias taldea protagonista izan da lehen egun hauetan. Egunero-egunero sartu da arrakasta izan duen ihesaldian, etapa batean izan ezik, eta hori bere neurrian baloratu behar dela dio Iturriak: “Korritu dugun beste edozein itzulitan baina

zailagoa da, Vueltan, ihesaldia harrapatzea, hemen asko ziklistak onak direlako. Nabarmentzea funtsezkoa da guretzat, eta lortzen ari gara”. Bestelakoan ez du erritmo aldaketa handi handirik sumatu: “Astebeteko beste itzuli batzuetan aritu izan gara, eta horietatik dagoeneko badakigu mendateak hurbiltzen direnean-eta, erritmoa asko handitzen dela. Ondo moldatu naiz”.

Iturria bera Roquetas de Mar herrian bukatu zen etapako ihesaldian sartu zen: “Beranduen gauzatu zen eguna izan zen. 50-60 kilometro ibili ginen egurrean, eta azkenean sartu nintzen. Sartzeko indarra eduki behar duzu, denek sartu nahi zutelako. Hogei lagun pasa sartu ginen, izen ezagun asko eta puntutxo bat falta izan zitzaidan onenekin helmugaratzeko -15. postuan helmugaratu zen, azkenean-”. Edu Prades taldekideak Pozo Alconen lortu zuen 4. postua ere oso ona dela uste du Iturriak: “Begira zein txirrindulari sartu ziren aurretik (Valverde, Sagan eta Gallopin)”. Taldearen lana ondo baloratzen dela uste du: “Gure lehen itzuli handia da, eta momentuz oso txukun ari garela uste dut. Sailkapen nagusirako ez daukagu ziklistarik, baina ihesaldietan-eta oso ondo ari gara”.

Asteburuko etapak begiz jota

Itzuli handi batek hiru aste ditu. Bat osatu dute. Eta Iturria ondo sentitzen da bigarrenari begira. Hirugarrenaz galdetuta, ezin du erantzunik eman: “Inkognita bat da niretzat, inoiz ez baitut hiru asteko probarik korritu inoiz. 10-12 egunekoak bai, eta horrek konfiantza ematen dit bigarren asterako”. Iturriak hainbat etapa ditu begiz jota, batez ere asteburukoak: “Hirurak mendatean bukatzen dira, baina tropela ihesaldiak iritsi ahal izateko baimena ematen ari da. Nekea pilatuz doa pixkanaka, eta ihesaldia harrapatzen saiatuko naiz, ea pasa den aste-ko 15. postu hori hobetzeko aukera daukadan”.

"GARAIPENAREN JOKOAN SARTZEA ZAILA DA OSO, BAINA POSTU ON BAT EGITEA POSIBLE DA"



Iturria, Vueltan. EUSKADI-MURIAS

Lehen urnietarra Vueltan

Duela berrogei urte Juan Gorostidi ziklo-krosean nabarmendu zen, munduko txapelketetan bereziki. Errepidean, ordea, Mikel Iturria da itzuli handiaosatzen ari den lehena.

Camperona, Les Praeres eta Covadongako Aintzirak dira hiru etapa bukaera horiek. Detalle txikiez mintzatzen da Iturria: “Ihesaldian sartzeko gaitasuna behar da aurrena, eta ondoren ahalik eta indar handiena gorde, aurkariak aztertu, eta erabaki zuzena hartu, indarra edukiz gero. Garaipenaren jokoan sartzea zaila da oso, baina postu on bat egitea posible da”. Itxuraz, beroa apaldu egingo da nabarmen hurrengo egunetan, Vueltak iparrerantz egin ahala. Trumoi giroa nagusituko omen da asteazkenetik aurrera, eta hori gustura hartuko dute Euskadi-Murias taldeko kideek: “Zalantzarik ez. Gu beste klima batekin ohituak gaude, eta hori baliatzen asmatu behar dugu”.

Asteburuko etapen ondoren aukerak asko urrituko dira. Erlojupekoa, Madrileko eta Andorrako etapa... Ez zaizkie aukera asko geratuko.

Orain arte eduki duen zorte onak bere horretan irauteko ahalegina egingo du Iturriak, ez baitu erorikorik jasan: “Susto batzuk izan ditugu, baina momentuz erorketarik ez. Ea antzera segitzen dugun”. Hala bedi!

Galdu zuen lagunari eskainitako txapela

HERRI KIROLAK Irabazlearen txapela buruan jartzen den une hori ez da sekula ahazten. Baina, garaipen guztien artean, Julen Gabirondorentzat zirraragarriena aurtengo Euskal Herriko sega txapelketa izango da. Bezperan hil baitzen Garaialde adiskidea

Erredakzioa ANDOAIN

Julen Gabirondo Izeta Euskal Herriko segalari onena da, eta hori hein handi batean Mikel Garaialde Orbegozo lagun minari esker izan da.

Abuztuaren 4an Andoaingo Goiburuko festetan auzoen arteko lagunarteko sega desafioa izan zen, eta bertara ikusle modura hurbildu zen Julen Gabirondo urnietarra. Ordu batzuk lehenago zabaldu zen Garaialderen heriotzaren albiste latza. Aiurrik Garaialderen heriotzaz elkarrizketatzea egin zion Gabirondori Goiburun bertan, Euskal Herriko sega txapelketaren finalaren bezperan.

Gertuko laguna joan zaizu, Julen Bizilagunak ginen, eta txikitatik elkar ezagutzen genuen. Hura nire etxera, ni berera... elkarrekin jolasten ibiltzen ginen. Pena handia hartu dut, baina era berean bera ezagutu izanaz pozik sentitzen naiz. Oso orotzapen onak utzi dizkidalako.

Sega, herri kirolak..., hura zuen bere bizitza

Halaxe da. Gizon probatan hasi zen, eta txapel batzuk atera zituen. Eta, gero, segan elkarrekin hasi ginen Xoxokan. Haren bi-tartez ekin nion segari 2013an, beste kide batekin lehiaztekoa zelako baina lagunak azkenean atzera egin eta niri deitu zidan. Berak animatuta hasi nintzen. Berak erakutsi zidan segan.

Biharamunean Asteasun jokatu zen Euskal herriko sega txapelketa. Emozioa gainezka izan zen lehia osoan zehar. Baina bereziki Gabirondo eta bere taldearen baitan. Negar malkotan amaitu zuen proba, ikusleen eta kideen txalo artean. Denak Gabirondoren eta Garaialderen harreman estuaz jakitun baitziren. Podiumean emozioari ezin eutsiz altxa zituen besoak, eta baita begirada ere. Zerura. Garaialde zuen gogoan.



Emozioak gaudituta altxa zuen besoa, zeruari begira, Asteasuko finalean. AIURRI



Gabirondo, Irazustabarrena, Zumeta eta Garaialde. AIURRI

2013ko desafioa Xoxokako jaietan

2013ko Xoxokako jaietan egin zuten desafio hura historiari pasako da. Lagunarteko sega desafio hartan parte hartzeko eskatu zion Garaialdek Gabirondori. Haren bidetik sartu zen sega munduan. Urte gutxira, Julen Euskal Herriko sega txapeldun izatera iritsi zen.



Gaztañaga eta Benitez espainiar jokalaria ezaguna, lehen partidaren amaieran.

Gaztañagaren debuta Zipren

FUTBOLA Abuztuaren 25ean ekin zioten Ligari. Garaipena eskuratu eta lehen minutuak jokatu zituen andoaindarrak

Erredakzioa ANDOAIN

Espainiako lehen eta bigarren mailan aritu ondoren, Jon Gaztañaga andoaindarrak ibilbide berriari ekin dio Zipreko lehen mailako AEL Limassol taldean. Etxetik kanpo jokatu eta 0-1 irabazi zuten, lehen jardunalditik lidergotza eskuratuz. Partidaren azken hamar minutuetan

jokatzeko aukera izan zuen Gaztañagak. Irailaren lehen jokatu zuten lehen partida etxean, Doxa taldearen aurka. Andoaindarrak minutu gehiago jokatzeko aukera izan zuen, 2-0 irabazi zuten partidaren. Gauzak horrela, bi garaipenekin, AEL Limassol taldea lider da. Hasiera ona, beraz, Zipre aldean.

Nahikari Garciaren debuta Espainiako selekzioarekin

FUTBOLA Urnietarrak urrats berria eman du bere kirol ibilbidean, Espainiako selekzioko lehen taldearekin debuta eginez. Abuztuaren 31n Espainia-Finlandia partidaren jokatu zituen lehen minutuak. Eta goleatzaile onenen gisa, gola egin zuen. Bigarren partida Logroñon jokatu zuten, irailaren 4an, Serbiaren aurka.



Iker Hernandez jokariaren aro berria Herbeheretan

FUTBOLA FC Den Bosch taldearekin kontratua sinatu du Urnietako futbol jokariak, Burgos CF taldearekin zuen hitzarmena eten eta gero. Herbeheretako bigarren mailako taldean arituko da, beraz, denboraldi honetan. Barakaldo eta Bilbao Athletic taldeetan aritu zen, Burgosera iritsi aurretik. Azken honetan 5 gol egin ditu 38 partidatan.



ZORION AGURRAK

ANDOAIN June
June Perez de Mendigurenek bere bigarren urtebetetzea ospatu zuen uztailearen 31n. Aita eta ama.



ANDOAIN Onintza
Onintza Berazak bere bigarren urtebetetzea ospatu zuen abuztuaren 2an. Muxuak etxeko guztien partetik.



URNIETA Arene
Uztailaren 29an 4 urte bete zituen etxeko printzesak. Aitona Jexuxek eta amona Merbxek asko maite zaitugu.



ANDOAIN Ane
Abuztuaren 27an Ane Ugartemendia Alonsok 2 urte bete zituen. Aitatxo eta amatxoren partetik.



ANDOAIN Leire
12 urte bete zituen gure neskek joan zen abuztuaren 7an. Segi orain bezain jator. Etxekoak.



URNIETA Xabier
Zure 5. urtebetetzean, aitona Jexux eta amona Merbxeren partetik. Zure irribarreak bizitza alaitzen digu.



ANDOAIN Arai
Arai Esnaola Tena joan zen uztailearen 13an jaio zen. Ongi etorri familiara! Etxekoak.



URNIETA Praxku eta Miren
Zorionak Elutxeta baserriko Praxku Urruzola eta Miren Ansari irailaren 9an beteko duzuen 61. urteurrenagatik. Eskerrik asko guztiagatik bikote.



URNIETA Lizar
Jadanik bi urte bete dituzu. Ondo pasa urtebetetze eguna familia guztiarekin.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 6**URNIETA Ikastaroak**

Saroben Yoga, pilates, gimnasia hipopresioa, bizkar eskola, gazte funky, balleta, sormen dantza edota antzerkia. Matrikulazioa zabalik, irailaren 19ra arte.
09:00-13:00, 16:00-18:00, Sarobe. 07:30-14:30, Bertan.

OSTIRALA 7**URNIETA Ikastaroak**

Udal kiroldegian spinning, tonifikazioa, adinekoen jardura fisikoa, zumba,... Ikasle berrien matrikulaziorako azken eguna irailaren 7a da.
08:30-14:30, Kiroldegia.

ANDOAIN Sorabillako jaiak

18:00 Txupinazoa.
18:30 Iturzaeta memorialaren bi finalen errebantxak.
20:00 Araoz abesbatza elizan.
21:00 Zikiro jatea eta Los Rubi.
02:00 Txokolata eta bizkotxo.

LARUNBATA 8**ANDOAIN Ospakizuna**

"Nuestra Señora de Guadalupe" egunaren ospakizuna.
12:30, Mijano de los Castuos.

ANDOAIN Sorabillako jaiak

09:30 Belkoingo mendi lasterketa.
11:00 Haur lasterketa.
11:30 Meza Alberto Agirrerren parte hartzearekin. Hamaiketako.



Herbeherako Wubkje Kuindersmaren "Youth" ikuskizuna.

ANDOAIN Dantzaz zikloa Andoainean

Irailean zehar eta azaroan danntza garaikideari loturiko ikuskizun sorta.
Irailak 13, osteguna. 19:00, kalez kale. Dantza potea herriko tabernetan.
Irailak 14, osteguna. 19:00, Bastero. Growing Young ikuskizuna.
Irailak 26, asteazkena. 19:00, Bastero. Barnaby Booth, aurrestreinaldia.

16:00-20:00 Haur jolasak.

17:00 Ate irekiera Erretoretxean.

17:30 Haur antzerkia: Patata tropikala.

19:30 Sardin jatea.

20:00-21:00 Alaiki zuzenean.

22:00-02:00 Alaiki zuzenean.

IGANDEA 9**ANDOAIN Sorabillako jaiak**

11:30 Eskopeteroak eta txaranga.
12:15 Joxe Mari Oartzabal musikari zuzendariari omenaldia.
17:30 Auzoen arteko herri kirolak.

18:30 Sagardo dastaketa eta

Kantujira taldearen emanaldia.

22:00 Jaien amaiera.

ASTELEHENA 10**ANDOAIN Bilkura**

Pentsio duinen aldeko bilkura, astero.
12:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Bastero

Iraila-abenduko saioetarako sarrerak erosteko aukera zabalduko da.
Basteroko leihatila, Kutxabank.

URNIETA Ikastaroak

Lekaion jostaketa, puntu eta kakorratza, zur taila, eskulanak, marrazketa eta pintura helduentzat eta argazkilaritza, eskulanak eta marrazketa eta pintura haurrentzat. Matrikulazioa zabalik, irailaren 10ean hasita.

09:00-13:00, 16:00-18:00, Lekaio. 07:30-14:30, Bertan.

ASTEARTEA 11**ANDOAIN Ikastaroak**

Basteroko eskaintza, 16 urtetik gorakoentzat: Pintura eta marrazketa, arte aplikatuak, egur taila, idazketa eta kartoiarekin egindako lanak. Ikastaroak Extremadura kaleko egoitzan eskainiko dira.

Irailaren 11tik 13ra iazko ikasleek izena emateko aukera izango dute.

Irailaren 17tik 21era lehen aldirik matrikulatuko direnentzat.

Izen-ematea: Bastero, Ataria.

OSTIRALA 14**ANDOAIN Dantzaz**

Europako koreografo ospetsuenen lau pieza ezberdinak batuko dituen Growing Young ikuskizuna.
21:30, Bastero. 10 euro.

ANDOAIN Erakusketa

"Euskara Andoainean: eten ez den soka" erakusketa. Euskaraldia egitasmoaren baitan. Erakusketa irailaren 14tik 29ra ikusgai izango da.
19:00, Bastero. Irekiera ekitaldia.

URNIETA Etxeberriko jaiak

18:30 Txupinazoa.

19:00 Pailazoak, pintxo-pote musikala.

LARUNBATA 15**ANDOAIN Zinema**

Zinema emanaldien ikasturtea irailaren 15ean abiatuko da. Irailean zehar helduentzat: "El mejor verano de mi vida", "Mamma Mia! Una y otra vez" edota "Oreina". Haurrentzat: "Hotel Transylvania 3", "Los Increibles 2" eta "Luis eta Estralurtarrak".

Ohiko ordutegia, Bastero.

URNIETA Etxeberriko jaiak

11:30 Ginkana.

13:30 Paella jatea. Bazkari herrikoien txartelak salgai irailaren 10era arte Biak eta Celtic's saltokietan.

16:00 Eskulanak.

17:00 Bingoa.

18:30 Karaokea.

20:00 Era askotako tortila lehiaketa.

21:30 Afari herrikoia. Bakoitzak berea eraman behar du.

22:30 Diskofesta: DJ Katxorro.

IGANDEA 16**ANDOAIN Lasterketa**

Leitzarano eta Plazaola bailarak zeharkatzen dituen lasterketaren edizio berria. Korrikalari edota ikusle modura parte hartzeko aukera polita da. Maratoia Lekunberititik abiatuko da, eta maratoi erdia Leizatik.
Goikoplaza, amaiera.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

Whatsapp bidez

Mezua eta argazkia bidali: 619 163 537.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera.
Telefono zenbakia: 943 300 732.

TELEFONO ZENBAKIAK

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.
Bastero: 943 303 540.

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 8 eta igandea 9
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 8 eta igandea 9
AGUADO: Kale Nagusia, 21.
943 550 327. Astigarraga.

Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Ana Carrere Zabala alkateak lanaldiari ekin dio berriro

San Juan jaietan agintarien dantza sokan Akileseko tendoia hautsi zuenetik, Ana Carrere Zabala alkateak bere jardunaldian etena egin behar izan zuen. Udalak ohar bidez zabaldu duenez, lanean da berriro: "Une honetan bere errekupeazio prozesua eta lana bateragarriak direla iritzita, alkateak lanean hasteko erabakia hartu du".



Ana Carrere Zabala Andoaingo alkatea aurten San Juan jaietan. AIURRI

Urnieta KE futbol taldeen aurkezpen ekitaldia

FUTBOLA Irailaren 8an, 16:00etan hasita, Urnietako futbol taldeek denboraldi berriari ekingo diote. Ohi bezala, ekitaldi polita antolatzen dute futbol zelaian talde eta jokalariek guztiak banan-bana aurkeztuz. Aurtengoan bederatzi talde izango dituzte, horietatik hiru emakumezkoenak. Ricard-Begiristain memoria goizez jokatu da.



Jubenil mailako taldea, iazko aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Allurralde kiroldegian ikastaro eskaintza zabalik

KIROLDEGIA Datorren irailaren 7ra bitarte, igeriketa eta beste-lako ikastaroetan izena emateko aukera zabalik izango da. Ordutegia honakoa izango da: Astehenetik ostiralera 9:30etik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era. Ikasturtea datorren irailaren 19an abiatuko da. Igeriketa, aldiz, datorren urriaren 1ean. Informazioa: kirola.andoain.eus.

Ganbarak emakume taldea osatu nahiko luke

SASKIBALOIA Ganbara Saskibaloio taldeak astelehenean ekin zion denboraldi berria prestatzeari. Infantil, kadete eta junior talde banarekin ekin nahi diote denborari berriari. Emakumez osaturiko taldea ateratzeko presutasuna dute, baina horretarako saskibaloian aritzeko prest dauden neskek animatu behar lirateke.

Leizaran eskubaloio taldearen aurrendenboraldia

ESKUBALOIA Andoaingo klubak denboraldi berria prestatzeari ekin dio. Ostiral honetan infantil mailako taldeak deituta daude, arratsaldeko 15:30etik aurrera. Informazio gehiago eskura dago leizaraneskubaloia.com webgunean. Klubak, bestalde, bazkide kanpaina abiarazi du. Bazkide bakoitzari agenda bana oparitzen diote.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



AZKEN BERBA

ION BELOKI
ANDOAIN

Gure chiquitako kantak

Gure kotxeko *radio kasetak* zenbat kasete erreproduzitu ote zituen egiten genituen bidaietan; azkenerako abesti guztiak ikasten genituen buruz.

Gure aitaren kotxean entzuten genituenak hauek ziren, besteak beste: Gozategi, Benito Lertxundi, Alaitz eta Maider, Gontzal Mendibil, Sorotan Bele, etab.

Guk ez genuen musika erdaldunik entzuten garai hartan, mexikar kantarik ez bazen... Internetak atek zabaldu dizkigula diote askok baina batzuetan musika munduan kalte egin ez ote duen susmoa dut. Gozategik azkena atera duen G puntua diskoko "Gure chiquitako kantak" abestiaren letrak ez du arrazoi faltarik. Txikitako kanta gehienak euskaldunak zirela dio abesti horrek eta reggetoiak reggetonto bihurtu gaituela. Saia gaitezen festetan kanta euskaldun gehiago jartzen eta gure gazteei gogorarazten, herri bat martxan badela eta musika talde asko daudela guk entzuteko zain.

Uda amaiera on!

**SAIA GAITEZEN
FESTETAN
KANTA
EUSKALDUN
GEHIAGO JARTZEN**

AZKENA



Pedro Aizpurua, Kaletxikiko familiarekin, 2015ean ateratako argazkian. AIURRI

Pedro Aizpurua zendu da, Salbe Gorenaren egilea

Gazte zela sorterrria utzi eta elizaren bidetik ibilbide oparoa egin zuen musikari modura. Ospe handiko disko ugari argitaratu zituen, eta berea da San Juan jaien bezperan eskaintzen den Salbe Gorena. Abuztuaren 13an zendu zen, 94 urte zituela

Erredakzioa ANDOAIN

Valladolid bizitoki bazuen ere, andoaindarra zen musikaria. Familia ere bertan du, Kaletxikin. Abuztuaren 15ean San Martin elizan eskaini zioten azken agurra 94 urteko musikagileari. Hamaika urte zituela, ikastera irten zenez geroztik, erlijio katolikoari eta batez ere musikari eskaini zizkion bere ahalegin

guztiak. Disko ugari argitaratu zituen, ospe handia lortuz horrexegatik. Valladolideko Katedralean kaperau-maisua izan zen urtetan. Urterik gehienak jaioterritik kanpo egin bazituen ere, ahal zuen guztietan Kaletxikin duen familiarengana etorri ohi zen. Horixe azaldu zion Aiurriri, 2015ean eskainitako elkarrizketa luzean.

Ez al da latza 11 urteko mutil koskor batentzat, etxea eta familia utzi behar izatea?

Batere ez. Ni zoriontsua izan nintzen Comillaseko eliz barne-tegian, eta ez daukat kexatzekorik orduz geroztiko bizitzan, ez elizgizon ezta musikari gisa ere. Berriro jaioko banintz, ibilbide berbera egin nahiko nukeela iruditzen zait.

Nondik sortu zitzaizun erlijiorako eta musikarako bokazioa?

Nire familiaren baitan izugarri bizitu izan da sentimendu katolikoa, beti. Aita Andoaingo abesbatzako kantaria zen, tenore bikaina zen, eta ni ere musikaria izan nendin nahi izan zuen. Behinola, amak galdetu zidan: apaiza izan nahi al duzu? Nik baietz erantzun nion. Medikua-gatik galdetuz gero, berdin erantzungo nukeela pentsatzen dut. Horrela, gurasoek Joakin Bermejo erretoreari kontsulta egin ostean, hamar urteko mutil koskorra Comillaseko seminaria bidaltzea erabaki zuten.

Andoainen Alberto Agirrek emandako musika irakaspenei esker, 13 urterekin, seminario txikiko organista ofiziala izendatu ninduten!

Kanpoan bizi arren, sekula ez duzu galdu jaioterriarekiko harremanik...

Urtean hiru txandatan etortzen naiz (Eguberrietan, Aste Santuan eta abuztuaren), familiarekin egonaldia egiteko. Horrela 80 urtez. Hitzordu horiek sakratuak dira niretzat. "Kaletxikira noa" esaten diet eliz-kideei. Noski, Kaletxiki zer den ez dakite eta orduan Andoaingo auzoa dela azaldu behar izaten diet. Andoain, Indurain bezala ahoskatu behar dela, azken i-an indarra jarri gabe, hori ere gogoraraztea komeni izaten da. **Comillasetik Orihuelara eta handik Valladolidera...**

Valladolideko gotzainak, euskalduna bera, hots egin zidan hara joateko gonbidatuz. Oso integratua sentitu naiz bertan beti. Bertako musika kontserbatorioko eta abesbatzako zuzendaria izan naiz urtetan, eta horri esker, nahiko ezaguna eta estimatua naiz.

**HERNANIKO
UDAL EUSKALTEGIA**

18/19 ikasturtea

Matrikula irekita irailaren 4tik 21era

Maila guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza.

Moduluak: asteen 2 edo 4 egun.

Eta azterketak: HABE, PERFILAK, EGA...

Titulu ofizialak: euskaltegian lortzeko aukera!

Aspaldiko!



**HERNANIKO
Udal Euskaltegia**

Karobieta auzoa, 63
(anbulatorio zaharra)
HERNANI
Tel.: 943 33 18 96
euskaltegi@hernani.eus